



16/2019 EBAZPENA, maiatzaren 13koa, Funtzio Publikoko sailburuordearena, Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administrazio Administralari Laguntzaileen kidegoko lan-poltsa handitzeko deialditik datozen langileak integratzeari buruzkoa.

Jaurlearitzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiak (EHAA, 2006ko ekainaren 13a) EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz aplikatu beharreko arauak zehazten ditu, eta 4. eta 22. artikuluetan ezartzen du Administrazio horren lan-poltsak zein kasutan eratu eta handitu behar diren.

2018ko azaroaren 28an Administralari Laguntzaileen lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egin zen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 7ko Ebazpenaren bidez goian aipatutako lan-poltsa handitzeko prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

2019ko maiatzaren 7ko ebazpenean akatsak atzeman ziren, eta horiek zuzendu ondoren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez, argitaratu zen Administrazio Orokorreko eta bere Erakunde Autonomoetako Administralari Laguntzaileen kidegoko lan-poltsa handiagotzeko hautaketa-prozesua gainditu zuten hautagaien behin betiko zerrenda.

Akatsen zuzenketa eta lan-poltsa horretako behin betiko osaera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez argitaratutakoan, langile horiek dagokien lan-poltsan integratuko dira, deialdian bertan jasota dauden baldintzen arabera.

EAEko Administrazio Orokorrean eta bere Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Jaurlearitzaren Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakian xedatuta dagoenaren arabera, Ebazpen hau eta lan-poltsa eguneratuaren zerrenda argitaratuko dira, Administrazioak bere informazioa hedatzeko erabili ohi dituen bitarteko telematikoetan.

Horregatik, Administralari Laguntzaileen lan-poltsa handiagotzeko prozesuaren ondorioz sortu den zerrenda berria bitarteko telematikoetan argitaratu behar da, eta indarrean egongo da argitaratzen den egunean.

Aurreko guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 9ko Ebazpenean zerrendatutako langileak integratzea Administrari Laguntzaileen lan-poltsan.

2.- Handitzeko prozesuaren ondoren sortu den lan-poltsaren zerrenda berria argitaratzea www.euskadi.eus/bolsastrabajo helbidean. Zerrenda horrek ondorioak izango ditu argitaratzen den egunetik aurrera.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari hilabeteko epean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orriko www.euskadi.eus/bolsastrabajo helbidean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a.


FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Función Pública